

Kontratu aurreko informazioa Baloreen aginduak jasotzeko, helarazteko, betearazteko, gordetzeko eta administratzeko zerbitzuak

Agiri hau ez da kontratua eta, beraz, ez du inolako betebeharrak edo eskubiderik sortzen. Dokumentu honen helburu bakarra da ulertzen laguntzea zer den eta nola funtzionatzen duten baloreei buruzko aginduak jasotzeko eta helarazteko, betearazteko, zaintzeko eta administratzeko zerbitzuek (aurrerantzean, Zerbitzua).

Arretaz irakurri eta sinatu behar duzu, jasota uzteko Bankuak entregatu dizula eta kontratatu aurretik zerbitzuari buruzko informazioa eman dizula.



Dokumentu hau irakurri ondoren ez badituzu ulertzen bertan jasotzen diren zehaztapenak, kontsultatu zailentzarak gabe zeure bulegoarekin edozein azalpen edo informazio gehigarri eman diezazuten, baina ezazu kontratatu bere edukia ulertu duzula ziur egon arte.

INBERTSIO-ZERBITZUA ETA ZERBITZU OSAGARRIAK EMATEN DITUEN ERAKUNDEA

BBVAri buruzko informazio jakin bat izan behar duzu, zerbitzuak emango dizkizun erakundea izango garelako.

- **BBVAri buruz datuak:** Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta gaude A-48265169 IFKrekin eta Bilbon dugu egoitza nagusia, San Nikolas plazako 4. zenbakian (www.bbva.es).
- **Erakunde gainbegiratzailerak:** Espainiako Bankuaren Entitateen Erregistroan gaude 0182 zenbakiarekin eta gaituta gaude inbertsio zerbitzuak emateko, Espainiako Bankuak (www.bde.es) eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (www.cnmv.es) gainbegiraturik.
- **Nola komunikatuko gara:** Gure arteko komunikazioak eta informazio-bidalketak kontratua sinatzen den hizkuntza berean egingo dira, eta edozein bitarteko erabiliz ere, baldin eta bitarteko horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna frogatuta badago eta informazioa paperean erreproduzitzeko aukera ematen badu. Komunikazioak posta elektronikoz, unean-unean baliozkotuta dugun helbidera, gailu mugikorretara edo www.bbva.es webgunearen bidez bidali ahal izango dira, eta baita posta arruntez ere.
- **Interes-gatazkak:** BBVA garen gara gure interes-gatazken gainean eta, dugun politikaren arabera,
 - identifikatu egiten ditugu eta
 - prebentzio- eta kudeaketa-neurriekin eta horiek konpontzeko jarduketaren prozedurekin tratatzen ditugu.

Azken buruan, gatazka jakin bat kudeatzeko hartutako neurriak nahikoak ez badira, arrazoizko ziurtasunez, arriskuak aurreikusiko direla bermatzeko, gatazkaren nondik norakoa edo jatorria jakinaraziko diogu, bere kontura jardun aurretik, ematen edo eskaintzen zaion zerbitzuari buruz egokien deritzon erabakia har dezan.

Politika honi buruzko xehetasunak eskuragarri dituzu gure webgunean: www.bbva.es

- **Aktiboaren zaintza:** BBVAk bezeroen eskura jartzen du finantza-tresnak eta bezeroen funtsak babesteko bere politika, kontsulta dezaten. Aipatutako politikak informazio zehatza nola eguneratua jasotzen du BBVAk bere finantza-tresnen

eta funtsen babesa bermatzeko hartutako neurriei buruz. Politika honi buruzko xehetasunak eskuragarri dituzu gure webgunean: www.bbva.es

BBVA Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtzari atxikita dago. Erakunde horren helbidea da C/José Ortega y Gasset, 22, 28006 Madrid; e-posta da: fogade@fgd.es; web-helbidea: www.fgd.es; eta telefonoa: +34 91 431 66 45.

Bermatutako diru-gordailuek 100.000 euroko muga dute gordailuzain bakoitzeko, aurreko muga alde batera utzita, gehienez 100.000 eurokoa erakundeari esleitutako balore-gordailu eta finantza-tresnengatik. Kontu bat titular batekin baino gehiagorekin badu, muga hori gordailugile bakoitzari aplikatzen zaio, bereizita.

ZER DIRA ZERBITZU HAUEK?

• Zerbitzuen deskribapena:

- **Aginduak jaso eta helaraztea:** inbertsio-zerbitzu bat da, zeinaren bidez baloreei buruzko aginduak helaraz ditzakezu horretarako gaitutako kanalen bidez, Bankuak bere kabuz edo bitartekari baten bidez egikaritu ditzan. Zerbitzu honen barruan dago, halaber, bi inbertsore edo gehiago harremanetan jartzeko jarduera, era horretan euren artean eragiketak burutu ditzaketeelarik.
- **Aginduak betearaztea:** inbertsio-zerbitzu bat da, zeinaren bidez bezeroen kontura balore bat edo gehiago erosteko edo saltzeko akordioak burutzen diren, jaulkitzen diren unean kreditu-erakunde batek edo inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek jaulkitako baloreak saltzeko akordioak egitea barne.
- **Baloreen zaintza eta administrazioa:** zerbitzu osagarri bat da, zeinaren bidez balorren kontu bat mantentzen den, beren posizioak egunean izanez, zorroa edukizetik eratorritako eskubideak gauzatzea bideratuz, etab.
- **Dibisa trukea:** zerbitzu osagarri bat da, zeinaren bidez dibisak erosten edo saltzen diren inbertsio-zerbitzu bat emateari lotuta daudenean.

• Betearazpen politikari buruzko informazioa:

BBVAk bere Betearazpen Politikaren laburpen bat eman dizu, besteak beste, honako honi buruko informazioa biltzen duena:

- betearazpen-zentroak hautatzeko prozesua,
- erabilitako betearazpen-estrategiak,
- lortutako beteareazpenaren kalitatea aztertzeko erabilitako prozedura eta prozesuak
- BBVAren bezeroentzat ahalik emaitza hobereenak lortu izana erakundeak nola kontrolatzen eta egiaztatzen duen
- izan ditzakezun gastu guztiak
- betearazpen-politikan aurreikusita den zentro bakoitzeko betearazpenaren kalitateari buruzko datu eguneratuak

Betearazpen politikari buruzko xehetasunak eskuragarri dituzu gure webgunean: www.bbva.es

• Zaintza-zerbitzua emateko erabiltzen diren tresnak babestea:

- **Hirugarren baten zaintzapean izateko aukera:** BBVAk azpizaintza globalak eta/edo tokikoak erabiltzen ditu likidazio- eta zaintza-eragiketak burutzeko bere bezeroek eragiketak egiten dituzten nazioarteko merkatuetan. BBVAk azpizaintzak hautatzeko, izendatzeko eta berrikusteko dituen irizpideak zehazten dituen prozedura bat du.
- **Kontu globalen erabilera:** Legeriak, tokiko jardunbideek edo azpizaintza batekiko kontratu-harremanak bestelakorik eskatzen ez badute, azpizaintzan gordailututako baloreak kontu batean gordeko dira BBVAren izenean, baina bere bezeroen kontura, omnibus bereizketa-erregimenean (azpizaintzaren kontu propioetik bereizita, baina ez azpizaintzako gainerako bezeroen posizioetatik). BBVAk bere liburu eta erregistroetan identifikatzen ditu bere bezeroen balore eta efektiboa, bai zuzenean bai zeharka azpizaintzen bidez gorderik badira.
- **Zaintza Europar Batasunetik kanpo:** BBVAk bezeroari jakinarazten dio ezen kontu globalari eusten dion bitartekaria Europar Batasuneko kide ez den estatu baten ordenamendu juridikoaren mende baldin bada, baloreen gaineko eskubideak, jabetza eta kaudimengabezia aldetik, ez datozela bat estatu kide baten legeriaren mende baleude izango lituzketenekin.
- **Berme, atxikipen eta konpentsazio eskubideak:** Baloreen zaintza, administrazio eta bitartekaritzako kontratua, zehazki, konpentsazio-kontratu baten akordio gisa eratzen da Espainiako legeriari jarraituz, eta BBVAri konpentsatzeko aukera ematen zaio bezero baten ez-betetzea edo kaudimengabezia gertatzen. Azpizaintzen aldeko konpentsazio- eta berme-klausulek kanpoan uzten dituzte BBVAk bere bezeroen titulartasunekotzat izendatzen dituen baloreak.
- **Bezeroen baloreak erabiltzea:** BBVAk ez ditu bere bezeroen baloreak erabiliko finantzaketa-eragiketetan, hala nola balore-maileguak edo berrerosteko ituna duten salerosketak, haien berariazko baimenik gabe.

- **Beste produktu edo zerbitzu batzuk kontratatu beharra:**
 - Baloreen aginduak jasotzeko eta helarazteko, betearazteko, zaintzeko eta administratzeko zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezkoa da gurekin kontu korrante bat kontratatuta izatea, zeinetan idatziko baititugu zerbitzu horietatik eratorritako kobraketa eta ordainketak; aipatu kontu horrek ez du zertan eduki behar erabilera eskusiboa.
 - Gainera, informazio jakin bat online eduki ahal izango duzu kanal digitalen bidez, eta, horretarako, kanal anitzeko kontratu bat eduki behar duzu, zuzentzat inolako kosturik ez duena.

ZEINTZUK DIRA URTEKO KOSTUAK?

Jarraian, azaltzen diren zerbitzuei buruzko kostu ohikoenak zehazten dira. Hauek dira zerbitzuak: **i) aginduak jaso eta helaraztea; ii) administrazioa eta zaintza; eta, iii) dibisa trukea:**

Errenta aldakorra erosteko edo saltzeko eragiketak		BBVAren komisioa			Brokerra		Errenta aldakorren adibide praktikoa			
de renta variable	Instrumentu mota	Komisioa	Swift	Komisioa		Adibiderako balio efektiboa	Komisioa, guztira	Kanona	Tasak	
SIBE, MAB / Espainiako Burtza	Akzioak eta ETPak	%0,60	9€	--	--	6.000€	36€	5,37€	--	
	Eskubideak	%0,60	1,8€	--	--	6.000€	36€	5,37€	--	
	Warrantak	%0,55	9€	--	--	6.000€	36€	5,37€	--	
Europa (1. taldea)	Akzioak, warrantak, eskubideak, ETPak	%0,85	15€	2,4€	%0,04	6,00€	6.000€	59,40€	--	(2)
SETS-SEAQ (Londres)						7,01£	6.000£	53,4€+7,01£	--	(2)
AEB (2. taldea)						10,0\$	6.000\$	53,4€+10\$	--	
Gainerako burtsak						15€	6.000€	68,40€	--	(2)

Oharrak:

Komisioak kalkulatzeko oinarria: Eragiketaren balio efektiboa (exekuzioaren prezioa x titulu kopurua)

1. taldea (Europa) = Euronext / Parisko, Amsterdameko, Bruselako, Milango (2), XETRA-Frankfurt-eko, Xontro-Frankfurt-eko, Vienako, Helsinkiko eta Atenasko burtsetan eurotan kotizatutako baloreak

2. taldea (AEB) = NYSE / New York, AMEX / American Stock Exch., NASDAQ, AEBetako White Sheets burtsak

(1) SIBEn (BME) exekutatutako Espainiako burtsako eragiketak kanon bati lotuta daude. Burtsak eragiketaren efektiboaren arabera aplikatzen duen kanona da, eta kostu gehigarri bat izango da inbertitzailearentzat. Adibide praktikoa azaltzen da 2017an aipatu zenbatekoari aplikagarria zitzaien kanona. Burtsaren Sozietate Errektoreak edozein unetan alda ditzake (normalean, urtero)

(2) Burtsa batzuk, dei honekin adieraziak kasu, tasa edo zerga bat aplikatzen dute akzio zehatz batzuk erosterakoan (ez guztietan), eta kostu gehigarri bat izango da inbertitzailearentzat. Agiri hau idazteko unean (2018ko urtarrila), honakoak ziren tasa horiek: Londresko burtsa = %0,50

(+ 1 £ dirutan > 10.000 £); Parisko burtsa = %0,20; eta Milango Burtsa = %0,10 (kasu guztietan, dirutan duten balioaren gainean).

Errenta finkoa erosteko edo saltzeko eragiketak		BBVAren komisioa			Adibide praktikoa	
Betearazpen zentroa/merkatua	Kalkulu oinarria	Komisioa	Gutxienezkoa	Swift	Adibiderako balio efektiboa	Komisioa, guztira
SEND, AIAF / Espainiako merkatua	Esku-diru balioa	%0,60	9,0€	--	6.000€	21€
Espainiako zor publikoa	Balio nominala	%0,50	6,0€	--	6.000€	30€
Nazioarteko merkatuak	Esku-diru balioa	%0,40	12€	2,4€	6.000€	24€

Baloreen administrazio edo zaintza zerbitzuan ohikoenak diren komisioak				BBVaren komisioa		BBVaren komisioa	
Kontzeptua	Instrumentu mota	Merkatu mota	Kalkulu oinarria	Komisioa	Gutxienekoa	Adibide-rako balio efektiboa	Komisioa
Zaintza	Errenta aldakorra	Nazionala	Esku-diru balioa	%0,20	12€	6.000€	12€
		Nazioartekoa	Esku-diru balioa	%1,00	60€	6.000€	60€
	Errenta finkoa	Nazionala	Balio nominala	%0,80	12€	6.000€	48€
		Nazioartekoa	Balio nominala	%1,00	60€	6.000€	60€
EEP	Errenta aldakorra	Nazionala	Esku-diru balioa	%0,35	6€	6.000€	21€
		Nazioartekoa	Esku-diru balioa	%0,40	12€	6.000€	24€
Harpidetza	Zor Publikoa	Nazionala	Balio nominala	0,50%	6€	6.000€	30€
	Errenta aldakorra	Nazionala	Esku-diru balioa	%0,375	5€	6.000€	23€
	Errenta finkoa	Nazioartekoa	Balio nominala	%0,375	5€	6.000€	23€
Amortizazioa	Zor Publikoa	Nazionala	Balio nominala	%0,50	6€	6.000€	30€
	Errenta aldakorra	Nazionala	Esku-diru balioa	%0,35	3€	6.000€	21€
	Errenta finkoa	Nazioartekoa	Balio nominala	%0,35	3€	6.000€	21€

Badira Baloreen Administrazio eta Zaintza Zerbitzuari buruzko beste komisio batzuk ere, BBVaren tarifen liburuxkan (www.bbva.es/Bezeroei informazioa helbidean eskuragarri) zerrendatuta daude eta BBVaren Baloreen Administrazio eta Zaintza Zerbitzuan jasotzen dira.

Dibisako eragiketen truke-tasa: BBVAn indarrean den truke-tasa aplikatuko da uneoro.

Kostu horiek BBVAn une bakoitzean indarrean dauden tarifak biltzen dituen liburuxkan azaltzen dira, eta eskuragarri daude www.bbva.es webgunean. Horrez gainera, baliteke zuzenean beste kostu batzuk sortzea, dokumentu honetan jasotzen ez diren eta BBVaren bidez ordaintzen ez diren zergak ordaintzea barne.

BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

- Grabazioei buruzko oharra:**

Kontratuan baimena emango diguzu gurekin dituzun elkarrizketa guztiak grabatu ahal izateko, dela telefonoz, dela komunikazio elektronikoz, aginduak jasotzeko, transmititzeko eta betearazteko zerbitzuei erlazonaturik direnean, bai eta dagozkion erregistroak eramateko ere. Grabazio horiek 5 urtez gordeko dira eta kopia bat zure eskura egongo da, eskaera egin ondoren.

- Nola informatuko dizugu administratutako edo zaindutako tresnei buruz?:**

Bankuak unean-unean emango dizu helarazi dizkigun aginduak betetzeari buruzko funtsezko informazioaren berri. Gainera, honako informazio hau jakinaraziko dizugu hiru hilabete behin:

- a) aldiaren amaieran diren tresna guztiei buruzko datuak.
- b) eskudirutan edo kupoietan dibidendua ordaintzea bezalako finantza-eragiketetan parte hartzeagatik zure alde sortutako edozein mozkinen zenbatekoa, eta onura horren sortzapen-oinarria.
- c) tresnen merkatuko balorazioa, edo beste balorazio bat, merkatukoa ez badago eskuragarri.









Balore-erreferentziak palanka-itxurako finantza-tresnetako posizioak edo pasibo kontingenteak dakartzaten eragiketak barne hartzen baditu, abisatu egingo dizugu finantza-tresna horietako bakoitzaren hasierako balioa %10 eta, ondoren, %10eko multiploetan gutxitzen denean, aplikatu beharreko araudiak ezarritakoari jarraituz.

- **Pizgarriak:**

BBVAk jaso dezake sortutako kudeaketa-komisioaren portzentaje bat kontratazioaren xede diren funtsen edo inbertsio-sozietateen sozietate kudeatzaileengandik edo banatzaile nagusiengandik, horien banatzaile edo banatzaileorde gisa. Portzentajea kudeaketa-komisioaren %85eraino irits daiteke, eta banaketa-komisioaren (baldin bada) %100era. Halakoen izaera dela eta, BBVAk kopuru horiek jasotzeak ez du, inola ere, bezeroarentzat kostu handiagorik eragingo.

Pizgarri horiek emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko pentsatuta daude, eta ez diote kalterik egiten zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez, interesik onenean, jarduteko dugun betebeharrari.

Agiri hau eman izanak adierazten du jaso duzula baloreei buruzko aginduak jaso eta helarazteko, betearazteko, zaintzeko eta administratzeko zerbitzuari buruzko informazio hau, behar adinako aurrerapenaz kontratatzeko erabakia hartzen laguntzeko prestatu duguna, hain zuzen

						 @bbva_esp
bbva.es	BBVA Kutxazai- nen sarea	BBVA aplikazioak	BBVA Zurekin	BBVA Linea 902 22 44 66 91 224 94 26 Atzerritik +34 91 374 73 68	BBVA bulegoak	 BBVAespana
						Sare sozialak